

USOGUNEKO ERAKASKERA

1999-2000 IKAS URTEA

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA:

1. Zertako ez zuten irria atxikitzen ahal jendeak?
2. Nor zen ametsetako lukhainka?
3. Andere horiek bagezuna behokia? Zertako?

II HIRU ANDERE 2

Gu bertzeak oro ixilik, elgarri so, irria ezin atxikiz; artetan hitz bat edo bertze ahal ginuen bezala erranez; bainan deus ezin adi.

Gutarik batek baitzuen berekin *indicateur* treinen orenak oro dauzkan liburuttoa, galdatu zion hiru anderetarik iduriz zaharrenak: «crakuts othoi». Behako⁹ bat emanik, bihurtu zion, zio-larik: «milesker».

Ez da erraiteko baizik, ez bide zutela deus gaixtorik. Paria nezakezu, ez zirela ohartzen ere, nola ginauden gu estonatuak.

Elhe eta elhe, hasten dire hirua kokolet¹⁰ jaten. Bat buru huntarik, bertzea hartarik loth eskuz; krisk-krask, puska hauts, eta ahorat. Ogirik gabe, hutsik bazeramaten ithoka.

«To! ametsetako lukhainka, dio gazteenak frantsesez, bertze bieri kheinu egiten diotelarik; behazue hantxeko hari».

Bagonaren bertze buruan zen jaun adineko bat, frango ontsa emana, kara onekoa; aise mintzo, eta itxuraz berak ere jakin, bazakiela mintzatzan; hots, *norbeit* bazela. Lege zaharreko jaun errient ohoragarri baten eite¹¹ zuen. Urrunera solasean hasten dire: «agur, jauna. — Bai zueri ere, andereak. Nola zarete? — Eta zu, jauna? Zato¹² gurekin bazkalerat. Aire hartzerat goazi egun guzikotz. Saliesen jausten gira. Zato. — Milesker, ez nitake jin. Urrunago noa. — Zato bederen hunat, gurekin solas egiterat».

Jauna irriz: nola zoaken bagonaren buru batetik bertzera, airean ez joaitekotz?

Gure andereñoak ez baitziren jaun hura bezen lotsa, ez herabe¹³, *airean* ibiltzeari, elgarrekin *kozurta* egiten¹⁴ dute: «joan baginte gu? — Ez. — Ba».

III ADITZE IKASKUNTEA

31. Treinen orenak dauzkan 32. hutsik bazeramaten

33. bazakiela 34. Zato

35. ez nitake 36. zoaken 37. joan baginte

31. EDUKI - Tenir - Indicatif Présent.

Singulier. Hura = le, la	Pluriel. Heiek = les
Nik daukat = je le tiens	N. dauzkat = je les tiens
Hik daukaku = tu le tiens	H. dauzkatu = tu les tiens
Zuk daukazu = vs le tiens	Z. dauzkatu = vs les tiens
Harek dauka = il le tient	H. dauzka = il les tient
Guk daukagu = vs le tiens	G. dauztagu = vs les tiens
Zuek daukaguz = vs le tiens	Z. dauztaguz = vs les tiens
Heiek daukate = ils les tiennent	H. dauzkatte = ils les tiennent

32. EREMAN = *Emporter, emmener, conduire*

INDICATIF IMPARFAIT.

Singulier. Hura = le, la	Pluriel. Heiek = les
Nik neraman = je l'emmenais	N. neramatzan = je les emmenais
Hik heraman = tu l'emmenais	H. neramatzan = tu les emmenais
Zuk zineraman = vs l'emmeniez	Z. zineramatzan = vs l'emmeniez
Hura zeraman = il l'emmenait	H. zeramatzan = il les emmenait
Gu gineraman = vs l'emmenions	G. gineramatzan = vs l'emmenions
Zuek zineramaten = vs l'emmeniez	Z. zineramatzen = vs l'emmeniez
Heiek zeramaten = ils l'emmenaient	H. zeramatzen = ils les emmenaient

35. IZAN. Potentiel

Présent

Ni izan naiteke = je peux être
Hi izan naiteke = tu peux être
Zu izan zaitezke = vs pouvez être
Hura izan daiteke = il peut être
Gu - " - gaitezke = vs pouvons être
Zuek - " - zaitezkete = vs pouvez être
Hek - " - daitezke = ils peuvent être

36. JOAN. Potentiel

Présent

Ni noake = je peux aller
Hi noake = tu peux aller
Zu zoazke = vs pouvez aller
Hura doake = il peut aller
Gu goazke = vs pouvons aller
Zuek zoazkete = vs pouvez aller
Hek doazke = ils peuvent aller

33. JAKIN. Indic. Imparfait

Nik nahien = je le savais
Hik nahien = tu le savais
Zuk zinahien = vs le saviez
Harek zahien = il le savait
Guk zinahien = vs le savions
Zuek zinahiten = vs le saviez

34. ETHORRI = venir

Impératif.

Athor = viens
Zatho = venez (sing)
Zathozte = venez (plur)